

Euskadin gazte gehienek euren gurasoek baino ikasketa-maila altuagoa dute


Aitak edota amak goi-mailako ikasketak dituztenean gehiago jotzen da goi-mailako ikasketak egitera

Euskadin bizi diren 25 eta 34 urte bitarteko gazteen % 51k goi-mailako ikasketak dituzte, bai goi-mailako heziketa zikloak (LH-II), bai unibertsitate-ikasketak (ziklo laburrekoak, ziklo luzeak edo graduondoko ikasketak, hau da, masterrak edo doktoretzak).

Gazteen beste % 40k derrigorrezko ikasketen ondorengoak osatu dituzte, hau da, Batxilergoa edo antzekoa edota erdi-mailako heziketa zikloa (LH-I).


Eta gainontzeko % 9k derrigorrezko ikasketak bakarrik (DBH, OHO) bete dituzte.

Gazteen ikasketa-maila Euskadiko 45 urtetik gorako biztanleriarenarekin konparatuz gero, alde nabarmena ikus dezakegu.




Baina, zelako eragina dute seme-alaben ikasketa-mailan gurasoen ikasketek?

Aitak gehienez derrigorrezko ikasketak dituztenean, gazteen % 42k goi-mailako ikasketak dituzte, baina aitak ere goi-mailako ikasketak dituztenean, seme-alaben % 77k dituzte maila hori.



Gauza bera gertatzen da ama hartzen badugu oinarri: derrigorrezko ikasketak baino ez dituen amen seme-alaben % 43k goi-mailako ikasketak lortu dituzte; baina amak goi-mailako ikasketak baditu, orduan maila bera duten seme-alaben kopurua % 78ra igoten da.

Bestalde, amak derrigorrezkoen ondorengo bigarren mailako ikasketak dituenen, aitak dituenen baino neurri handiagoan osatzen dituzte goi-mailako ikasketak, seme-alabek.



Aitzitik, aitak edota amak goi-mailako ikasketak dituztenean, % 2 baino ez dira derrigorrezko ikasketak dituzten 25 eta 34 urte bitarteko gazteak.

Aitak eta amak osatutako ikasketa-mailak bateratzen baditugu, ikus dezakegu guraso biek derrigorrezko ikasketak dituztenean, 25-34 urte arteko seme-alaben % 85ek gurasoen ikasketa-maila gainditzen dutela eta, are gehiago, % 40k goi-mailako ikasketak dituztela.



Horrela, adieraz daiteke gurasoek (aitak edota amak) lortutako ikasketa-mailak eragina duela seme-alabek osatutako ikasketetan, baina, batez ere, ikus daiteke gurasoen ikasketa-mailak ez duela zeharo mugatzen seme-alabena.

Gurasoek seme-alabei prestakuntza akademikoa emateko egindako esfortzuari esker, seme-alabek ikasteko interesari esker eta baliabide ekonomiko gutxiago duten gazteak bigarren eta goi-mailko ikasketak egin ahal izateko bideak jartzen dituen Hezkuntza sistema publikoari esker, Euskadiko gazteek aurreko belanuldikoeak baino ikasketa-maila askoz altuagoa dute.

Datuok [Gazteen Euskal Behatokia](#) aztertu ditu, Behatokia berak 2013ko azaroan eginiko ikerketa zabalagoa oinarri hartuta. Ikerketa horretan Euskadiko 25 eta 34 urte bitarteko gazteen lagin adierazgarria elkarrizketatu zen (1200 gazte) eta, hainbat galderen artean, hauxe galdetu zitzaizen gazteei: zein mailako ikasketak zituzten amaituta, eta zein ikasketa-maila zuten euren gurasoek. Bestalde, 45 urtetik gorako biztanleriaren datuekin alderatzeko, 2013ko abenduan Gazteen Euskal Behatokiaren eta Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen artean elkarlanean eginiko ikerketa bat hartu da kontuan.

Jarrai gaitzazu sare-sozialetan!

